



1/2018 akta

OSATEK SA SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2018KO MARTXOAREN 22KOA

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua osatu da Osateken egoitzan, Bilbon, Bizkaia Plazako eraikinean (Urkixo zumarkalea 36 – 5. solairua), 2018ko martxoaren 24an, 15:30ean. Jarraian adierazita datoz bertaratu direnen izenak eta gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna

KIDEAK

M^a Jesús Mugica Anduaga andrea
Andoni Arcelay Salazar jauna
Lide Amilibia Bergaretxe andrea
Daniel Salazar Irusta jauna
Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Fernando Aguirre De Miguel jauna
Susana López Altuna andrea, idazkari-lanetan

Osatek SAko zuzendari kudeatzaile Josu Xabier Llano Hernaiz jauna ere bileran izan da, hitza hartzeko eskubidearekin baina ez botoa ematekoa.

GAI-ZERRENDA:

- 1. Aurreko bilerako akta onartzea, bidezkoa bada.**
- 2. 2017ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea.**
- 3. Erresonantzia magnetikoko zerbitzuaren 2017ko urteko jarduera, eta 2018rako aurreikuspenak.**
- 4. Teleasistentzia eta Telemonitorizazio zerbitzuen urteko jarduera, eta 2018an mandatua amaitzea.**
- 5. 2018an erresonantzia magnetikoko makina berriak instalatzea.**
- 6. Hizkuntza-eskakizunen akordioa eta Euskara Plana aurkeztu eta onartzea.**
- 7. Euskara Planaren lantze-egoera.**
- 8. Kalitatea 2017an, eta 2018rako aurreikuspenak.**
- 9. 2017ko jarduera zientifikoaren laburpena.**
- 10. 2018-2021 aldirako Plan Estrategikoaren aurrerapena.**
- 11. Kontratu Publikoei buruzko Lege berria.**
- 12. Galderak eta eskaerak.**

Osatekeko zuzendari kudeatzaile Josu Xabier Llano jaunak hartu du hitza, gai-zerrendari heltzeko:

1. Aurreko bilerako akta onartzea, bidezkoa bada.

Aurreko bilkuraren akta irakurri ondoren, proposatutako aldaketa bakarra poltsen aurkako gora jotzeko errekurtsioak (bilkuraren 9. puntuan jasoak) aurkeztu dituzten pertsonen inzialak jasotzea izan da. Aldaketa eginda, akta onartu egin dute.

2. 2017ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak, eta kudeaketa-txostena egitea.

Kudeatzaileak kontseiluari aurkeztu dio ikuskatzaile independenteak egindako urteko kontuen ikuskapena.

Hura aztertu eta eztabaidatu ondoren, kontseiluak erabaki du hurrengo ekitaldietan txostena sinatu duen ikuskatzailea administrazio-kontseiluaren bilkurara joatea.

Kudeatzaileak urteko kontuen eta 2017ko ekitaldiko kudeaketa-txostenaren berri eman du. Hauek dira kontu horien eta itxiera ekonomikoaren datu esanguratsuenak:

- 2017ko abenduaren 31n dagoen egoeraren balantzea:

Aktiboa, guztira (korrontea eta ez-korrontea): 15.734.555

Ondare garbia + pasiboa: 15.734.555

- Galdu-irabazien kontua (2017ko abenduaren 31n):

Galdu-irabaziak: 82.571

- 2017ko ekitaldiko emaitzen banaketa-proposamena

Banaketaren oinarria: Galdu-irabaziak: 82.571

- Ibilgetu materiala:

Amaierako balio garbia: 7.040.160

- Ibilgetu ukiezina:

Amaierako balio garbia: 32.559

- Diru-sarrerak, zerbitzua emateagatik:

EM: 18.114.478

Teleasistentzia/Telemonitorizazioa: 7.461.757

Guztira: 25.576.235

- Langile-gastuak:

- 14.087.707

- Ustiapeneko bestelako gastuak:

- 9.507.526



Sozietatearen langile finkoak guztira, 2017ko abenduaren 31n: 113 (71 emakume eta 42 gizon).

Ondoren, zuzendari kudeatzaileak kudeaketa-txostenaren atalak zehaztu ditu. Kontseilukideei aurretik emandako dokumentazioari erreferentzia eginez, ondorengo puntuak aipatu ditu:

3. Erresonantzia magnetikoko zerbitzuaren 2017ko urteko jarduera, eta 2018rako aurreikuspenak

Irudi bidezko diagnostikoa

2017an, guztira 104.712 paziente artatu dira; hau da, % 6,36ko igoera izan da 2016. urtearen aldean.

2017an, erresonantzia magnetiko bidez, 136.100 miaketa egin dira; hau da, % 4,76ko igoera izan da 2016. urtearen aldean.

Honako helburu nagusi hauek jarri dira 2018rako:

Irudi bidezko diagnostikoa

Osakidetzarekiko hitzarmen erregulatzaila berritzea:

Pazienteen kopurua: 110.000

Fakturazioa: 21.000.000 euro

Osasun Sailarekiko kontratu-programa berritzea

30.000 eurotik gorako fakturazioa

4. Teleasistentzia eta Telemonitorizazio zerbitzuen urteko jarduera, eta 2018an mandatua amaitzea.

Teleasistentzia Zerbitzu Publikoa (Betion):

47.329 laguni eman zaie zerbitzua 2017ko abenduaren 31ra bitarte; hau da, 2016ko itxieran baino % 9 gehiagori.

2018rako teleasistentzia arloko aurreikuspenak ondorengo puntuetan oinarrituko dira:



- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren mandatu berria 2018ko uztailetik aurrera. Kontseiluak mandatu berriaren edukiaren gaineko aurretiko txostena eskatu du, haren balorazioa egiteko.
- Koordinazio soziosanitarioko proiektuak garatzen jarraitzea.
- 2017an hasitako arreta pertsonalizatuko laguntza-eredua sendotzea.
- Historia soziosanitaria diseinatzen laguntzea.

Osasunaren telemonitorizazio-prozesuan:

Arreta eman zaie bihotz-gutxiegitasuna eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK) duten 400 paziente ingururi, eta laguntza teknologikoa eman da ahotik hartzeko antikoagulatzaileen tratamenduaren jarraipenerako (tele-TAO) 14 egoitza edo adinekoen eguneko zentrotan.

2017ko abenduaren 31tik aurrera, Osatekek amaitutzat jo du jarduera hori, eskualdatze operatiboa eginda, Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpenaren ostean (horren bidez Osakidetzak berreskuratu zuen jarduera horren eskumena).

Aurkeztutako agirien berri eman ondoren, eta Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 253. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Administrazio Kontseiluak honako hau erabaki du:

«Lehenengoa: Sozietatearen 2017ko urteko kontuak eta 2017ko kudeaketa-txostenak onartzea. Bertaratutako kontseilukide denek eman dute sinadura adostasuna adierazteko.

Bigarrena: Sozietateko Akziodunen Batzorde Nagusiari, Kontseiluak aurkeztutako urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta 2017ko ekitaldiko emaitzen banaketa-proposamena ezagutaraztea eta onartzea proposatzea, horrela egitea egokia baderitzo».

Kontseiluaren bilerak aurrera egin du, gai-zerrendako ondorengo puntuekin:

5. Erresonantzia magnetikoko makina berriak instalatzea.

Kudeatzaileak, ekipo berriak ezartzeko proiektuen oraingo egoera ez ezik, egin beharreko obrak eta ezarri beharreko informazio-sistemak ere azaldu ditu. Halaber, hiru lurraldeetako erresonantzia magnetikoaren eskariaren egoera ere aurkeztu du.

Dauden aukerak aztertu ondoren, kontseiluak honako hauek ezartzeko lizitazio-prozedura hastea onartu du: erresonantzia magnetikoko ekipo berriak –Eibarren egingo den ospitalean–; makina



berri bat, laugarrena, Donostia Ospitaleko Osateken zentroan, eta, azkenik, erresonantzia magnetiko bat San Eloy ospitalean (kokatuta egongo den eraikina egiten amaituta).

6. Hizkuntza-eskakizunak eta Euskara Plana aurkeztu eta onartzea

Kudeatzaileak Administrazio Kontseiluaren akordio-proposamena aurkeztu du; akordio horren bidez hizkuntza-eskakizunak eta nahitaez bete beharreko datak esleitzen zaizkie Osatek SAren lanpostuei. Edukia aztertu eta eztabaidatu ondoren, behin betiko erabakia kontseiluaren hurrengo bilera batera atzeratzea erabaki da, bileran proposatutako aldaketak gehitu eta berrikusi ondoren.

7. Kalitatea 2017an, eta 2018rako aurreikuspenak.

Zuzendari kudeatzaileak 2017an berritutako kalitate-ziurtagirien berri eman du: ISO 9001:2015, ISO 14001:2015 eta EKOSCAN araua.

Horrez gain, hala eskatu duten fakultatiboei eta pazienteei Kudeaketa Aurreratuko ereduaren araberrako Kanpoko Kontrastea eta gogobetetzeari buruzko azterketak egin zaizkie.

2018rako aurreikuspenei dagokienez: aurreko ziurtagirien urteko berritzea eta 2018-2021erako Plan Estrategikoa amaitu eta hedatzea nabarmendu dira.

2018an egingo diren bestelako ekintza interesgarriak: faktore psikosozialak baloratzea eta segurtasun-politika eguneratzea, Osatekeko langile guztiei dagokienez.

8. 2017ko jarduera zientifikoaren laburpena.

Kudeatzaileak sozietatearen jarduera zientifikoa azaldu du, eta ondorengo puntuak nabarmendu ditu:

2017an, Osatekeko profesionalek 32 proiektutan parte hartu zuten. Zabalkundeari dagokionez, 16 artikulua argitaratu ziren.

30 lan zientifiko aurkeztu dira estatuko eta nazioarteko kongresuetan, eta horietatik 4k errekonozimenduak lortu dituzte.

2017an, 4 proiektu berriri ekin zaie lehiaketa-deialdietan (horietako bat Europan, eta RIS3 bat) lortutako finantzaketari esker, baita 2 saiakuntza klinikori ere.

Osatek sozietateak irakaskuntza eskaintzen die, halaber, beste zentro batzuetako erradiodiagnostikoko espezialistei eta inguruko zentroetatik zein beste autonomia-erkidego



batzuetatik datozen barneko mediku egoiliarrei (BAME). Medikuntzako ikasleei prestakuntza ematen ere parte hartzen du sozietateak.

9. 2018-2021 aldirako Plan Estrategikoaren aurrerapena.

Zuzendari kudeatzaileak erresonantzia magnetikoaren arloko Plan Estrategikoaren lantze-mailaren berri eman du; amaierako fasean dago jada, eta honako gai hauek ditu ardatz: erresonantzia magnetikoaren eskaeraren igoera kudeatzea; interes-taldeen kalitate- eta gogobetetze-estandar handiak (sozietatearen ezaugarria) mantentzea; jasangarritasuna eta lidergoa irudi bidezko diagnostikoan.

10. Kontratazio publikoaren 9/2017 Legea.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko Lege berria indarrean jartzeak nola eragingo duen azaldu dio kudeatzaileak kontseiluari. Azaldu du, besteak beste, kontratazioko barneko jarraibideak desagertuko direla, eta izapide guztiak elektronikoki egingo direla. Horregatik eta beste gauza batzuegatik, sozietatearen kontratazio-prozedurak araudi berrira egokitu beharra dago.

11. Galderak eta eskaerak.

Kontseiluko kideek etorkizuneko bileretan jorratu beharreko zenbait gai interesgarri proposatu dituzte, kudeatzaileak txostena egin ondoren betiere:

- Erresonantzia nuklear magnetikoaren kostuari buruzko merkatu-azterketa,
- Compliance-proiektua egitea.
- Lan-kargei eta antolamendu-hobekuntzei buruzko azterlana egitea.

Gai gehiagorik egon ez denez gero, 19:30ean, bilera amaitutzat eman da hurrengo deialdira arte.

IDAZKARIA

Izpta.: Susana López Altuna

PRESIDENTEA

Izpta.: Ignacio J. Berraondo Zabalegui